

-BALOREZKO PROPOSAMENA

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

Gure bezeroen gelak nahi dituzten modura diseinatzeko gai izango gara (tenperatura, argi eta soinua gure egunerokotasuneko bizimodura egokituz). Askotan gure bizi estiloari eta osasunari kalte ugari eragiten dizkion geletan bizi gara, eta denbora asko igarotzen dugu gela horietan (tenperatura altuegiekin, errepideetako soinu desatseguinekin, paretetako hezetasunekin...). Proiektu honen bidez, arazo guzti hauek ekidingo genituzke, eta norberak dituen ezaugarrien arabera egokitzeko ahalmenan eskuratuko litzateke.

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Beste enpresak oso handiak dira, eta horren ondorioz bezeroak ezingo dituzte modu eraginkorrean zaindu. Baina gure kasuan, bezeroak banan-banan zainduko ditugu, enpresa lokal bat izanik bezero gutxiago izango ditugulako, eta horren ondorioz gure kezka maila eta arreta askoz ere handiagoa izango da. Enpresa handienek milaka bezero izaten dituzte, eta oso ohikoa izaten da gela-mota zehaztu batzuk izatea, eta soilik horiek eskaintzen dituzte. Gure kasuan, aldiz, telefonoz edo lokalera etorritik zure gela diseinatzeko ahalmena izango duzu (beti baldintza batzuekin, noski), baina askoz ere muga gutxiago izango dira, eta horrek bezeroaren ongizatea bermatuko luke.